

HASIERA

GAIKAK

ANTZERKIAARTEABERTSOLARITZADANTZAERAKUSKETA EUSKARA
IRITZI ARTIKULUAKJAIALDIAKJARDUNALDIK LITERATURAMUSIKAZINEMA
BESTELAKOAK

ATALAK

KONTALARIAKBEREZIAKBULETINAMULTIMEDIAGURE BAZTERRETATIK
KS ARETOA

HERRIALDEKA

ARABANAFARROA BEHEREABIZKAIAGIPUZKOALAPURDINAFARROA
ZUBEROAEUSKALHERRIA

ZOKETAK

DENDAOSTEKOAKAMAK

HOME / GAIK / LITERATURA / [BIDEOA] ASIER GOROSTIDIK ETA IGOR SARRALDEK 'EUSKAL HERRIKO ANIMALIAK. ORNOGABEAK' LIBURU ILUSTRATUA PLAZARATU DUTE



(argazkia: Erein)

BIZKAIA LITERATURA NABARMENDUAK PORTADAN

[BIDEOA] ASIER GOROSTIDIK ETA IGOR SARRALDEK 'EUSKAL HERRIKO ANIMALIAK. ORNOGABEAK' LIBURU ILUSTRATUA PLAZARATU DUTE

By Ainhoa Lores Aranda / 2022-01-11

Euskal Herriko animaliak. Ornodunak liburuaren jarraipena da oraingoan argitaratu dutena. Ilustratzaileek animaliei buruzko gida-liburuaren ohiko formatutik aldendu eta haurrentzat, zein helduentzat erakargarria izango den liburua sortu dute.



Asier Gorostidi eta Igor Sarralde ilustratzaileek *Euskal Herriko animaliak. Ornogabeak (Erein)* liburu ilustratua kaleratu dute. Hainbat proiektutan elkarrekin lan egin duten arren, iaz argitaratutako *Euskal Herriko animaliak. Ornodunak* izenekoan izan zen elkarrekin egindako aurreneko liburua. Sarralde eta Gorostidik Arte Ederren fakultatean ezagutu zuten elkar eta txikitatik dituzte animaliak

eta ilustrazioa gustuko. Sarralderen hitzetan hutsune bat betetzeko asmoz sortu zuten bilduma. Izan ere, animaliei buruzko gida-liburu txiki asko dira liburutegietako apaletan, baina formatu horretatik aldendu eta haurrentzat, zein helduentzat erakargarria izango zen liburua sortzea nahiago izan zuten. Lehen argitalpen horretan, Euskal Herriko baso eta uretan bizi diren animalia mordoak bildu zituzten, jendearentzat ezagunagoak diren txantxangorria edo sugandilak ziren horietako batzuk, baina baita dortokak, oreinak eta artzak ere. Orotara, gure lurraldeko 50 espezie enblematikoenen ezaugarri eta berezitasun guztiak jaso zituen lanak.

Oraingoan, iaz abiatutako bidetik jarraitu eta bigarren alea kaleratu dute egileek, baina, kasu honetan ornogabeak dira liburu honetako protagonistak. Guztira 70 animalia bildu dituzte. “Saiatu gara animalia hauenganako daukagun ezagutza handitzea eta bata bestetik bereizten ikastea edo bakoitzaren ezaugarri bereziak ikusaraztea, izan ere, horrek jakin-mina pizten du eta ikusten ditugunean ilusio handiagoa egiten digu”, adierazi dute.

Animaliak antolatzerako orduan, kopurua izan dute kontuak egileek: “lehen atalean intsektuak sartu ditugu, gero araknidoak eta hirugarrenean gainerako guztiak”. Hala ere, aurreko liburuaren antzeko egitura mantentzen saiatu direla nabarmendu dute, eta oraingoan ere, aurrekoan bezala hiru kapitulu osatu dute liburua: “atal bakoitzaren aurretik sarreratxo bat sartu dugu eta kapituluaren bukaeran *Hobeto ezagutu* izeneko orrialde bikoitza, bertan talde horren bitxikeriak sartu ditugu”.

(Irudiak: Erein)



Zabaldu:

← MUNDUKO FILM LABUR ONENAK GASTEIZERA HURBILTZEKO ASMOZ, ICOOF JAIALDIA SORTU DUTE

FIPADOC DOKUMENTALEN FESTIBALA URTARRILAREN 17TIK 23RA EGINGO DA, MIARRITZEN →

BILATU

Bilatu ... BILATU



Lege oharra



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzak) diruz lagundua



KULTUR SHAREA

ZABALDU KULTURAREN LEIHO GUZTIAK ETA EUSKARAZ SHARETU

